

IRAGARKIA

2016ko 429 Alkatetza Dekretuak, 2016erako merkataritzarako diru-laguntzak emateko oinarriak onetsi zituen. Hona hemen:

MERKATARITZARI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILE PROPOSAMENA

Diru-laguntza ildo	MERKATARITZARAKO DIRU-LAGUNTZAK
Aurrekontu partida	23431077101
Partidaren deskribapena	MERKATARITZARI LAGUNTZEKO LINEAK
Diru-laguntza emateko erregimena	ZUZENEAN EMATEA

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da erregulatzea Basauriko Udalak udalerriko xehekako merkataritza berrizatzeko eta haren lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin emandako diru-laguntza ekonomikoak zuzenean emateko deialdia.

2.- - APLIKAZIO-EREMUA

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak honako hauek finantzatzeko izango dira: instalazioetan egindako inbertsioen gastuak, merkataritzako enpresak ekipatzea eta berriztatzea eta enpresa horien irudia, lehiakortasuna zein kalitatea hobetzeko egindako inbertsioak.

Ez dira diru-laguntzekin laguntzeko ekipamendutzat hartuko establezimenduaren produkzioarako zuzenean erabiltzen diren gailuak (adibidez: solarium makina bat, ile-apaindegietako plantxak eta ile-lehorgailuak, okindegietako labeak, eta abar), ez bada txikizkariak inbertsio hori egin behar duela aplikagarri den araudiari egokitzeko

3.- ONURADUNAK

1.- Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen onuradunak honako hauek izango dira: batetik, 2016eko urtarrilaren 1etik aurrera merkataritza-establezimenduak eraberritu edo zaharberritzeko obrak egiten dituzten pertsona fisiko zein juridikoak; eta bestetik, 2015ean zehar diru-laguntza eskatu eta jaso ez zutenak, aurrekontu-gordailurik ez zegoelako, baldin eta eskaera epean aurkeztu eta oinarri hauetan eskatutako dokumentazio guztia erantsi bazitzaion. *Azken kasu horretan, aukera izango lukete 2017ko diru-laguntzen onuradun izateko.*

- "Enpresa txikia" izatea. Zentzu horretan, eta Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioari jarraituta, enpresa txikiak izango dira egoitza soziala Basaurin duten enpresak edo, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izan baina enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusten dutenak, gehienez ere 50 langile dituztenak eta urtean 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra dutenak. Enpresaren datuak zehazteko aintzat hartuko da ea enpresa autonomia den ala, gomendio-irizpideei jarraituta, lotutako enpresa den. Kasu horietan, datuak zehazteko kalkulua 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.

- Jarduera profesionalen 64., 65., 66., 67. eta 68. ataletan jasotako jarduera izatea, 646., 652.1. eta 655. salbu. Saillapen horretan jasotakoez gain, jarduera horien 97. atalean jasotakoak ere onuradunak izan daitezke.

- Egoitza soziala Basauriko udalerrian izatea edo, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izan baina enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikustea.

- Herri Administrazio desberdinei begira, haiekin dituzten zerga-obligazioekin egunean egotea, eta baita ere egunean egotea Gizarte Segurantzarekin dituzten obligazioetan. Basauriko Udalarekiko zerga-egoera ofizioz egiaztatuko du Merkataritza Atalak.

- Enpresa eratuta egotea eta merkataritza-jarduera bat izatea, bi urteko gutxieneko antzintasunarekin. Hasiera-data izango da Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta eman zeneko eguna.

- Aurreko ekonomia-ekitaldian diru-laguntzarik jaso ez izana (hau da, 2015ean diru-laguntza jaso bazuten, ezin izango dute beste bat jaso 2017ra arte), 2015ean zehar eskabidea aurkeztu eta aurrekontu-gordailurik ez zegoelako, 2016ko ekitaldira arte zain geratu direnak salbu.

2.- Merkataritza-jardueraren titulartasuna aldatzen bada jarduera eskualdatu delako, haren forma juridikoa aldatu delako edota jarduera lehenagotik zegoen enpresa batengandik bereizi delako, bi urteetako epea ez da berriro zenbatzen hasiko: aldaketa gertatu baino lehen hasitako zenbaketari eutsiko zaio. Bakar-bakarrik onartuko dira oinordetzagatik, negozioa langileei lagatu izanagatik edota forma juridikoa aldatzeta izanagatik egin beharreko titulartasun aldaketak. Aitzitik, ez dira onartuko arrazoi fiskal, juridiko edo pertsonaletan oinarritutako aldaketak, baldin eta jabeak mantentzen badira.

4.- KANPO UTZITAKOAK

1.- Salbuespeneko kasuak aparte utzita, ezin izango dute Diru-Laguntzen Plan honetan parte hartu beste erakunde batzuen (Bizkaiko Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza) diru-laguntza programetan parte hartzen ari direnak.

Edozein kasutan, enpresa-jarduerari dagozkien talde edo atal hauek kanpoan geratuko dira:

646. epigrafea: "tabako-lanen eta erretzaileentzako gauzen xehekako merkataritza".

652.1 azpiepigrafea: Farmaziak: "botiken, osasun-produktuen eta norbere higienarako produktuen xehekako merkataritza".

655. azpiepigrafea: "erregaien eta lubrifikatzaileen xehekako merkataritza".

2.- Era berean, ulertuko da hortik kanpo daudela erakunde eta sozietate publikoak, administrazioen menpeko erakundeak eta elkarte edo taldeak, interes ekonomikoko erakundeak eta aldi baterako enpresa elkarteak salbu.

5.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN KONTZEPTUAK

1.- Diru-laguntzak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako gastu eta inbertsioetarako, edota 2015ean zehar izapidetu eta diru-laguntzarik jaso ez duten eskabideetarako izango dira. Honako gastu hauek dira diruz lagunduko direnak: merkataritza-lokaletan instalazioak egitea, lokal horiek ekipatzea eta berriztatzea eta enpresa horien irudia, lehiakortasuna zein kalitatea hobetzeko egindako inbertsioak.

2.- Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak dira oinarri hauetan jasotako kontzeptu batzuei banaka-banaka atxikita egoteaz gain, garapen-proiektu bakoitzeko aholkularitza-prozesuan gomendatutako edo proposatutako jarduerekin bat datozenak, hau da, merkatuaren enpresa-garapen prozesuaren barruko jarduera-estrategia zehatz bati dagozkion gastuak (merkatu berrietan sartzeari, berrikuntzak produktuan/prozesuan, IKTetara egokitzea, eta abar).

3.- Zehazkiago, diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira:

- Merkataritzako lokalen barrualdea eta kanpoaldea moldatzeko obrak, egokitzeari, merkataritzako azaleraren banaketari edota lokalaren irudia hobetzeari dagozkionak. Horrelakoetan, obra edo instalazio lizentzian ageri diren zenbatekoak baino ez dira aintzat hartuko.

- Mugikortasun murrizta duten pertsonen sarbidea errazteko helburuarekin, oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako berritze lanak. Honi dagokionez, obra edo instalazio lizentzian ageri diren zenbatekoak baino ez dira aintzat hartuko.

- Establezimenduan segurtasun eta irisgarritasun neurriak ezartzeari dagozkionak.

- Makineria elektronikoa edo mekanikoa.

- Merkataritzako altzariak eta ekipamendua erostea.

- Establezimenduan bakarrik erabiltzeko diren ekipo informatikoak eta softwarea, hau da, TPV edo antzeko zerbaiterako erabiltzen direnak. Horrez gain, beharrian hori badagoela argudiatu beharko da.

- Aholkularitza taldeak kontratatzea merkataritzako kalitate-arauak ezartzeko edota arau horiek egiaztatzeko.

- Argiztatzera, erakusleho-apainketarako teknika berritzaileak ezartzera edota salmenta-puntua diseinatzera eta girotzera bideratutako baliabideak optimizatzea.

6.- DIRU-LAGUNTZA JASO EZIN DEZAKETEN KONTZEPTUAK

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da diru-laguntza jaso dezakeen kontzeptutzat hartuko, ez bada enpresari gastua eragiten diola. Hala egiaztatu beharko da, Foru Ogasunaren egiaztagiria aurkeztuta.
- Honako hauek ere ez dira diruz lagunduko: lokala erostea, ibilgailuak edota salgaiak erostea, merkataritza-jardueraren berezko ondasun suntsikorrak (poltsak, eta abar) eta enpresaren jarduera osatzen duten ekoizpen zuzeneko ekipoak (oinarrien 2. atalean jasotakoak, adibidez: okindegietako labeak, ile-apaindegietako ile-lehorgailuak eta plantxak, solariumetarako eta estetikarako makineria, eta abar).
- Telebistak erostea ere ez da diruz lagunduko.

7.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak egiteko dagokion eskaera-orria aurkeztu beharko da Basauriko Udaleko HIABen (Herritarrei Informazioa eta Arreta Emateko Bulegoa). Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidearen 38. artikulua baimendutako edozein modu ere erabili ahal izango da. Eskaria aurkezte hutsarekin, interesdunak Oinarri hauetako edukia onartzen duela joko da. 2016an merkataritza-establezimendu bakoitzak laguntza-eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

8.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Diru-laguntzak eskatzeko epea hasiko da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean, eta 2016ko abenduaren 31n amaituko da. Horrez gain, 2015ean egin eta ordaintzeke dauden diru-laguntzak ere aintzat hartuak izango dira; horiek ez dute eskabide berria aurkeztu behar.

9.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Establezimendu bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da. Eskabideei honako hauek erantsi beharko zaizkie:

- a) Egindako inbertsioen, berritzen edo erosketen memoria txiki bat.
- b) Enpresa txikiak definitzen dituzten ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitorpena, Oinarri hauen 3. artikuluan jasotzen den bezala. Horri dagokionez, Oinarrietako II. Eranskinean agertzen den dokumentua bete beharko dute.
- c) Gizarte Segurantzako Diruzaintzak egindako egiaztagiriaren jatorrizkoa, hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik eta/edo Langile Autonomoen Erregimen Bereztik ondorioztatutako kuoten ordainketekin egunean egotea egiaztatzen duena.

d) Enpresak zerga-obligazioak dituen Administrazio Publiko guztiek egindako egiaztagirien jatorrizkoak, enpresa zerga-betekizun horiekin egunean dagoela egiaztatzen dutenak.

e) Sozietateen kasuan, eskabidea egiten duen pertsona sozietatearen ordezkari gisa ari dela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia, sozietatearen IFZ eta pertsona fisikoaren NA edota lan-baimena.

f) Hirugarrenen fitxa, merkataritza-establezimendu edo enpresaren banku-datu guztiak jasoko dituen. Fitxa horrek, enpresak kontua duen finantza-erakundearen zigilua eduki beharko du.

g) Enpresak, Oinarri hauetan diruz lagundu daitezkeen kontzeptu bezala jasotakoan kostuak ordaintzeko egindako edo egin asmo dituen finantziario-eskariei buruzko aitorpena. Aitorpen hori III. Eranskineko eredia erabilita egingo da.

h) Diruz lagundu daitezkeen eta benetan ordainduak izan diren gastuak agertzen dituzten fakturen eta ordainketa-egiaztagirien jatorrizkoa eta kopia.

i) Obra-lizentzia eta tasa ordaindu izanaren egiaztagiria, egokitze-obrak egiten dituztenen kasuan.

2.- Eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu ezean, Basauriko Udalak enpresa edo merkataritza-establezimenduarengana joko du, hutsegiteak konpondu edota falta diren agiriak aurkeztu ditzan. Eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio horretarako, jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasiko dena. Hala jasotzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 71. artikulua. Epe hori igarota dokumentaziorik aurkeztu ez bada, eskatzaileak diru-laguntza eskaera bertan behera utzi duela jo eta eskabide hori artxibatu egingo da.

Era berean, Basauriko Udalak beharrezko jotzen duen dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du, enpresa eskatzaileak egitasmo honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatze aldera.

10.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Basauriko Udalak gastuen eta inbertsioen % 40 finantzatuko du. Gehienez ere, 1.000,00 € emango dira eskabideko. Diru-laguntza hauek ez dira itzuli behar. Hala eta guztiz, Udalaren ekarpena % 50era artekoa izango da baldin eta altzariak zein ekipamendua erosi, barrualdean obrak egin edota zerbitzua eman, egoitza fiskala Basaurin izan edota Basaurin dauden enpresek egiten badute.

11.- ENPRESA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Diru-laguntza hauek jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Diru-laguntzak erabiltzea haien xede diren kontzeptu eta zenbatekoetarako, bai eta adierazitako epeetan erabiltzea.

b) Basauriko Udalak egin ditzakeen egiaztatze-jarduerak eta dagozkion finantza-kontrol jarduerak onartzea.

c) Basauriko Udalari jakinaraztea xede bera duten diru-laguntzak edo bestelako laguntzak jaso direla, edota diru-laguntza hau emateko aintzat hartuak izan diren beste edozein inguruabar objektibo zein subjektibotan egondako aldaketak. Hori guztia zinpeko aitortpena aurkeztuta egin beharko da.

d) Diru-laguntza jaso duen establezimenduan **gutxienez urtebetez** jardutea, laguntza eman den datatik aurrera. Establezimendua adierazitako epea baino lehenago itxiko balitz, enpresa onuradunak Udalari jakinarazi eta emandako diru-laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko dio, aktibitatea eten denetik urtebetea amaitu arte doan zatia, alegia.

e) Inbertsioak udalerriko establezimenduan egin beharko dira. Onuradunek herritik kanpo beste establezimendurik badute, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, jasotzen duena inbertsioa Basauriko establezimenduan egingo dela.

12.- AURREKONTU-IZENDAPENA

Basauriko Udalak, 2016ko ekitaldian zehar, 50.000 euro bideratuko ditu deialdi honetarako diru-laguntzetarako, honako partida honen kontura: 236221177101. Merkataritzari laguntzeko lineak.

13.- DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Onuradunak, berari dagozkion gastuak, fakturen eta ordainketa-egiaztagirien bidez zurituko ditu. 600 €-tik gorako fakturak ordaintzeko, banku-agiria aurkeztu beharko da, dela transferentzia-egiaztagiria, dela helbideratze-agiria, dela horien antzeko bat.

Aurrekontu-partidan jasotako izendapena agortzeak ez du 2016an zehar eskatutako diru-laguntzak ukatzea ekarriko. 2016an zehar aurkeztu eta, aldeko ebazpena jaso eta gero, kreditua agortu izanagatik dagozkien diru-laguntzak jaso ez dituzten eskaerak, hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio, kasuan-kasuan hala ezarriko balitz.

14.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Prozedura arautuko dute onartutako Oinarri Arautzaileek beraiek, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak, eta udal diru-laguntzak emateko Ordenantzak.

15.- ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Basauriko Udalak bere gain hartzen du diru-laguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabilia izango ez dela bermatzeko konpromisoa.

Basaurin, 2016ko otsailaren 3an . ALKATEA. Andoni Busquet Elorrieta

I. ERANSKINA

ESKATZAILEA:
NA:
TELEFONO ZK.:

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

Memoria deskribatzailea.

NAren fotokopia.

Sozietatearen IFZ eta eskaera egiten duen pertsonak duen ordezkari-tza egiaztatzen duen agiria.

Basauriko Udalak egindako hirugarrenaren fitxa, banku-datuak jasotzen dituen.

Enpresa txikiak definitzen dituzten ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitortpena.

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak egindako egiaztagiraren jatorrizkoa, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik edota Langile Autonomoen Erregimen Berezitik ondorioztatutako kuoten ordainketekin egunean egotea egiaztatzen duena.

Enpresak zerga-obligazioak dituen Administrazio Publiko guztiek egindako egiaztagirien jatorrizkoak, enpresa zerga-betekizun horiekin egunean dagoela egiaztatzen dutenak.

II. ERANSKINA

ENPRESA TXIKIAREN BALDINTZEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA

ENPRESA	
HELBIDEA	
IFZ	
ORDEZKARIA ABIZENAK, IZENA e	
NA	

Enpresa txikia izatea. Zentzu horretan, eta Europako Batzordeko 2003/361/CE Gomendioari jarraituta, enpresa txikiak izango dira hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Gehienez ere 50 langile izatea.
- Urtean 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra izatea.

Enpresaren datuak zehazteko aintzat hartuko da ea enpresa autonomoa den ala, gomendio-irizpideei jarraituta, lotutako enpresa den. Datuak, berriz, zehaztu egin dira 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraituta.

Adierazten du, halaber, Basauriko Udalak hala eskatuko balu, haren esku jarriko lukeela aurreko hori egiaztatzeko dokumentazioa.

Basaurin,.... (e)koren(e)(a)n

Sin.:

III. ERANSKINA
BESTE DIRU-LAGUNTZA ESKARIEI BURUZKO AITORPENA

ENPRESA	
HELBIDEA	
IFZ	
ORDEZKARIA (ABIZENAK, IZENA)	
NA	

ZERA AITORTZEN DU:

Ez duela eskatu, ez diotela eman eta ez duela aurreikusi eskaera honen xede den proiektuari lotutako inolako diru-laguntzarik eskatzea inongo administrazioari edo erakunde publiko edo pribaturi, nazionala edo nazioarteko izan.

Administrazioari edo erakunde publiko edo pribatuei, nazionalak edo nazioartekoak izan, eskaera honen xede den proiektuari lotutako diru-laguntzaren bat eskatu diela, halakorik lortu duela edo halakoak eskatzea aurreikusi duela.

ERAKUNDEA	EGITARAUA	ESKATUTAKO LAGUNTZA	
		DATA	ZENBATEKOA

HONAKO KONPROMISO HAU
HARTZEN DU:

Basauriko Udalari idatziz jakinaraziko diola, dagozkion jakinarazpenak jaso eta 15 eguneko epean, eskatutako edo jasotako diru-laguntzaren gaineko edozein aldaketa, publiko zein pribatua, nazional zein nazioartekoa, baldin eta aldaketa horrek eskaera honen proiektuarekin edo proiektu horren zati batekin zerikusirik balu. Era berean, edozein motatako diru-laguntza eskatu dien erakunde publiko orori diru-laguntza hau jaso duela jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Basauri,